

Aretxagazeta

Osasun Astea:
Gaixoak
zaintzen
eta maitatzen
ikastea



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Liburuzain berria
herrian /8

POLITIKA
Konponbide
demokratikoa /9

LEINTZ GATZAGA
Hurretik:
Maider Beloki /10

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 27
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 28
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

OHARRAK


'NESKA POLITAN' ANTZERKIA
Gaur gauean, Loramendi euskara elkarteak antolatuta, antzerki ekitaldia egongo da ikusgai. Kasketa Kabaretera antzerki taldeak *Neska politan* antzezlan eskainiko du gaueko hamar eta erdietan udaletxe zaharreko bigarren solairuan.

LITERATURA TOPAKETAK KURTZEBARRI ESKOLAN
Literatura Topaketen barruan, ipuin kontaketa izango dira datorren astelehen eta martitzenean Kurtzebarri eskolan. Astelehenean 2, 3 eta 4 urteko umeei kontatuko dizkiete ipuinak irakasleek, eta martitzenean, Sebastopoleko Titiriteroak izango dira munduko ipuin eta kondairak kontatzen.

ORAIN DELA 8 URTE ARETXABALETAN

Udala, 'Euskaldunon Egunkaria'-ko akziodun

Sebastian Lizaso bertsolariak sinatu zuen Aretxabaletako Udalak *Euskaldunon Egunkaria*-ri erosi zion akzioaren agiria. Orain dela zortzi bat urte, *Euskaldunon Egunkaria*-k hasitako kanpaina bati jarraituz, Aretxabaletako Udalak akzio baten truke milioi erdiko laguntza eman zion.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perpeziñua"

Zerbait egiteko erraztasuna, trebetasuna.
-Eskulanetarako perpeziño aundixa dauka Julenek.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKO TXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- GAZTEENDAKO LITERATURA**
- 'Holaxe dira gauzak' / Garbiñe Salaberria
 - 'Justizia nire esku' / Maialen Zubeldia
 - 'Itaslabarreko etxea' / Miren Agur Meabe
 - 'Begi argi horiek' / J. Kruz Igerabide
 - 'Metamorfosiak' / Ovidio. Liburu egokitu du: Juan Kruz Igerabide
 - 'Ulises' / Homeroren Odisearen bertsioa. Juan Kruz Igerabide
 - 'Munduari itzulia 80 egunetan' / Jules Verne
 - 'Ibaia maitasunaren oztopo' / Begoña Bilbao
 - 'Amodioaren gazi-gozoak' / Aitor Arana
 - 'Alde hemendik, makal hori!' / Ann Ladiges
 - 'Azeri-zuloa' / Pello Esnal
 - 'La batalla de Matxitxako' / Fernando Marías
 - 'El mensajero del rey' / Toti Martínez de Lezea

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Josu Urzelai
20an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ESKORIATZA
Alazne Miguélez
21ean, 4 urte. Zorionak, aitaren, amaren eta Olaiaren partetik.




ESKORIATZA
Timo Cabezas
25ean. Zorionak eta muxu handi bat, senarraren eta semearen partetik.



ARETXABALETA
Nagore Gebrino
24an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amaia Olaizola
25ean, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, zure lagunen partetik.



ESKORIATZA
Beñat Arrieta
26an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Elene Carrillo
26an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Ander Zubia
27an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Itxaso Eraña
27an. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Ane ahizparen partetik.



ARETXABALETA
Jaione Zugasti
28an. Zorionak eta muxu handi bat Pausokako zure umetxoaren partetik.



ARETXABALETA
Jon Zubia
28an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en eta Endikaren partetik.



ESKORIATZA
Aritz Urzelai
28an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Maialen Lete
23an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!
Foto
Urkiola
Argazkidenda
HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretea edo albuma dohanik !!

ORLY

Herriko plaza z/g
Laster zabalik!

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

MartiW


Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Udalak 3 milloi eta erdi euro gastau gure dittu zine-areto barrixen. Ze uste dozu?




AGUSTINA SAN MIGUEL
Jubilaue



VICENTE FDEZ. DE ANTONA
Langillie




MARIAN AGIRRE
Langillie



CARMELO BENGOA
Jubilaue



ITZIAR MARTÍNEZ
Ikaslie



ANDER HERNÁNDEZ
Ikaslie

Ondo. Aretxabaletan hola-ko zeozer falta da gaztiena-dako eta nagusixondako. Gastau gure badaue, sei-ñalie badaukiela; gaiñera, hamar urte barru karuague izengo da aretue egittie.

3 milloi eta erdi euro? Pre-supuestuen inguruen ez dakit ezer be, baiñe asko da-la pentsetan jat. Dana dala, zeozer falta da herrixen, aste bukaeretan hutsik gera-ketan da-eta Aretxabaleta.


Zerbait biher dala pentsetan dot, ez daukogu-eta ezer be. Edifizio bat egittiek ez dakit ze presupuesto euki-ko dauen, eta ezin dot diru kontuez ezer be esan. Neri, ondo pentsetan jat.

Diru asko da. Zinera fan gure dauenak topaukodau nora fan, eta ez dot pentsetan hainbeste diru gastau biherko litzakienik. Mer-kiague izen ezkeru, ondo, baiñe horrenbeste diru...

Herrixen ez badau holako ezer be, ondo pentsetan jat. Hala eta be, diru asko da. Horrenbeste diru gastau barik ezin izengo litzake egin? Ondo aprobeztetako moduen egin daixiela.

Ondo egongo litzake, baiñe diru asko da. Egixe da zaharra konpondu eta segiduen itxi euela barriro, baiñe barrixe be ondo egin daixiela. Diru hori gastaute, herritarrok igerriko dutzogu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GURPILAK ZULATZEN Baten bat aspertuta dago azke-naldian herrian, zer egin ondo pasatzeko eta automobiletako gurpi-lak zulatzen hasi da. Hainbat automobili tokatu zaie zorte hori, aste barruan, gainera, eta herriko hainbat kaletan aparkatuta daudela. Autoen jabeendako kostu handia dakarren umekeria alde batera utzi, mesedez, ondo pasatzeko mila modu daude-eta. /MA

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

Literatura Topaketak

Liburuaren Eguna aitzakia hartuta Literatura Topaketa egiten ari dira Kurtzebarri eskolan.

ASTEAN BEHIN /5

Osasun Astea egingo dute

Parrokiako Osasun Pastoral-tzak osasunaren gaineko astea antolatu du datorren asterako.

KIROLAK /6

Otala Zelaiko krosa

Maiatzaren 5ean egingo da Otala Zelaiko krosa. Aurten herritarren parte hartzea bultzatu gura da.

ASTEKO DATUA

42

LAGUNEK JASOTZEN DU ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Atsedean enpresak ematen du etxeko laguntza zerbitzua Aretxabaletan, eta 42 herritarrek jasotzen dute. 15i etxeko lanak egiten dizkiete eta beste 27ek zerbitzu pertsonala ere jasotzen dute.

BESTE EKESANA

“Brasileko Movimento Dos Trabalhadores Rurais Sem Terra ko asentamentu baten pasatako bi hilabete-

tan gauza asko ikasteko aukera izan badut ere, bertan ikusitakoa esaldi baten laburbildu nezake: Beste Mundu Bat Posible dela erakutsi didate Brasileko Sem Terrakoek.

Brasil, munduko 9. indar ekonomiko izan arren, injustizia sozial handienetakoa duen estatua ere badela. (...) Panorama honek hasieran atzeraka bota dezakeen arren Brasilen hamaika mugimendu sozial daude egoera honi buelta emateko prest. Nire bidaiak hauek ezagutze-ko aukera paregabea eskaini dit. Indar ekonomikoak zehaztutako neoliberalismoaren bidetatik irten eta beste mundu alternatibo bat erakitzea posible dela erakutsi didate.

ENERITZ PAGALDAI
Mundukide berripapera/02-03-27

HERRITARREN BERBAK/ Xabier Sarasua



Globalizazioak ez nau harrapatuko!

Globalizazioa, zer ote da? Mundua globo bat bezala puztuta dagoela eta lehenago edo beranduago bere egiazko neurrira itzuliko dela?

Baliteke hori horrela izatea eta baita beste hainbat gauza ere: merkatuen liberalizazioa, pribatizazioa, mundu mailako komunikazioa eta elkarreragina...

Nik, ostera, bi helburu nagusi ikusten dizkiot prozesu honi guztiari. Lehenengo munduaren heren aberatsak beste bi heren-zapalduak gehiago eta hobeto esplotatu ahal izatea. Mundua hil arteko lehiarako borroka-eremu bihurtu eta onenak (indartsuenak, aurreratuenak eta gupidagabeenak) irabaz dezala! Halere, gailurrean bilduko dira gero 7 irabazleak galtzaileek behar dituzten Lehen Laguntzez jarduteko. Gaitzerdi!

Bigarren helburua berriz, herritarren guztizko indibidualizazioa da, hau da, eguneroko

lana eta bizimodua nahikoa erantzukizun duen herritar xeheari gizarte mailako arazo eta erabakien ardura gainetik kentzea. “Zer egin dezaket nik? Hori ez da nire arazoa”. Kito!

Baina hori ez dute lortuko, inola ere. Niri asko axola baitzaizkit nazio mailako gaiak,

“Are gehiago, europar naizen aldetik, aurten ere ez dut Eurovision galtzeko asmorik (Iurop slibin a zelebreixon)”

alegia, selezioaren partiduak eta horrelakoak. Are gehiago, europar naizen aldetik, aurten ere ez dut Eurovision galtzeko asmorik (Iurop slibin a zelebreixon). Ez pentsa bestalde, muskulazio gelan edota Canal Satelitea ikusten igarotzen

dudanik neure aisialdi guztia. Sakelako telefono bidezko azken “herri kontsultan” ere parte hartu nuen, esaterako (Miss Alacanten alde egin nuen).

Badakit halere, gehiago egin dezakedala. Nire eta munduko gizon-emakumeen arteko merkatal harremanak bidezkoago bihur ditzakedala, adibidez, bidezko merkataritzako dendan erosita. Gustura egingo nuke gainera... Aizue! Travela-ekin ordaindu al daiteke?



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Artistak
direla eta

Aurrekoan Larrinuko San Kristobal elkar-
tean izan ziren bi
artista ezagun: Lazkano
eta Agirre bertsolariak.
Majo moldatu ziren biak,
afaritari batu zirenen ar-
tean barre eta poza sor-
tuz. Adar jotze eta txiste
arteñ bertsolariak gus-
tura, eta zer esanik ez en-
tzuleak. Hurrengo batera-
ko bertsolari gazteagoak
ekartzea ere ez legoke
txarto. Niri behintzat gaz-
teagoak gustatzen zaizkit,
Silveira, Kolina, Irazu...

Bertsolaritzatik mar-
golaritzara egingo dut sal-
to segidan. Gai honetan
badugu eta artista bat.
Herrikoa oraingo hau:
Gurutze Mujika. Bergara-
ko Pazkoetako kartel ira-
garlearen lehiaketa iraba-
zi du. Jaietako kartela
ikusten baduzue, beraz,
gogoratu Gurutzek egin-
dako margolana dela. Zo-
rionak neska, eta ekarri
hurrengoan ere horrelako
berri onak.

Aretoa egiteko eskaera egin
diete kultura taldeek politikoei

MIRARI ALTUBE

Kuartelean egin gura duen
aretoaren proiektua aurkeztu
die Udalak herriko kultura
taldeei. Talde horiek, oniritzia
emateaz gain, proiektuak
aurrera egin dezala eskatu
diete alderdi guztiei.

Burukomin eta esamesa ugari
sortu ditu aretoaren kontuak bai
udaletxean bai herrian ere. Iri-
tzia jaso guran, hainbat erabile-
ra izango dituen aretoaren proiektu-
a aurkeztu zien Aretxabaleta-
ko Udalak herriko kultura taldeei
joan den astean.

ARETO BEHARRA

Aurkeztutako proiektuaren ara-
bera, Otorara kaleko 27. zenba-
kian dagoen kuartela bota eta
hainbat erabilera izango dituen
areto dotorea egingo dute. Herri-

ko kultura taldeek ikusi dutena
ontzat eman, eta horren aldeko
apustua egitea erabaki dute. Izan
ere, Aretxabaletako kultura tal-
deak kezkatuta daude herrian
oso ekintza gutxi antolatzen dire-
lako. Antolatzen direnak, gaine-
ra, ez dira batere azpiegitura ego-
kietan egiten. Bai Musika Esko-
lak bai Akordeoi Orkestrak baita
Abesbatzak ere euren lana her-
rian ezagutarazteko izugarritzko
zailtasunak dituzte. Antzerkiak,
kontzertuak, hitzaldiak, eta abar,
antolatzeko ere oso mugatuta
daude bai Udala bai herriko kul-
tura taldeak.

Hori guztia dela eta, areto
berria ezinbestekoa dela uste dute
herriko kultura taldeek. Eta era
berean, udalbatza osatzen duten
alderdi politikoei eskatu gura
diete euren arteko adostasun fal-
ta konpondu, eta areto berriaren
lanak lehenbailehen has ditzaten.



MIRARI ALTUBE

Ez dago zine zaharra konpontzeko asmorik..

TXUTXUMUTXUA



Literatura Topaketak Kurtzebarri Eskolan

Liburuaren Nazioarteko Egunean (hilak 23) hasi eta hurrengo
martitzena bitartean Literatura Topaketak egiten ari dira Kur-
tzebarri Eskolan. XI. Irakur Maratoia egitearekin batera,
Bitoriano Gandiaga idazlea omendu dute. Xabier Díaz Esar-
terekin eta Arantxa Urretabizkaiarekin solasaldiak izan dituz-
te, eta gaur, egubakoitza, Hiruki taldea etorri da ipuinak kon-
tatzera. Astelehenean, ipuin kontaketa egongo da, eta mar-
titzenean, Sebastopoleko Titiriteroak etorriko dira. /M. A.

LABUR

Gurutze Mujika margolariak Bergarako V.
Abdon Juaristi pintura lehiaketa irabazi du

Arientza auzoan bizi den Gurutze Mujika margolariak Bergara-
ko V. Abdon Juaristi pintura lehiaketa irabazi du. Bere margo
lanak Bergarako pazko jaietako zezenketak iragarriko ditu.

Gurutzek, bestalde, margo erakusketa zabalduko du Trebiño-
ko Cucho herrian. Domekan hasi eta maiatzaren 12a bitartean egon-
go da zabalik erakusketa, Cuchoko La Casona del Condado base-
rri turismo etxean. Gurutzek hamabi margolan eroango ditu, olio-
pinturak guztiak, eta natura hil pare bat izan ezik, gainerakoak
paisaiak izango dira.

Angelines
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea*

 Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

**Taberna
Berri
jatetxea**

 Durana, 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67

MAITE
ileapaindegia

 Sarasate, • 943 79 59 05
ARETXABALETA


**ZARAIA
TABERNA**

 Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

BASTER ALDE jatetxea
SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

**OSKAR
GARAJEA**

 Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

URBALTZ
TABERNA

 Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

OSASUNA/ Hitzaldiak izango dira lau egunean eta gaixoen aldeko eukaristia zapatuan

Parrokiako Osasun Pastoraltzak osasunaren gaineko astea egingo du

MIRARI ALTUBE

Datorren astelehenean hasi eta zapatua bitartean Osasun Astea egingo dute herrian. Urtero legez, Parrokiako Osasun Pastoraltzak antolatu du, eta hitzaldiak izango dira lau egunean. Zapatuan bukatuko da Osasun Astea, gaixoen aldeko eukaristiarekin.

Astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean lau hitzaldi egingo dituzte herrian, gaixoen ingurukoak guztiak. Gaixotasunak ez dituzte medikuntza alderditik aztertuko, fedearen eta psikologiaren ikuspuntutik baizik.

GAIXOAK ETA FEDEA

Gero eta zahar gehiago ei daude gizartean, eta zahartzaroak gaixotasunak dakartza. Hori dela eta, Osasun Pastoraltzak osasunaren inguruko astea antolatzen du urtero. Gaixoengan baino gehiago, etxean gaixoak dituzten senitartekoengan eta gaixoak zaintzen dituztenengan pentsatuta egin izan dute astea, eta aurren ere hala izango da. Hitzaldietan ez dute azalduko gaixotasunak zelan osatu; gaixotasunak eramangarriago egiteko zer egin

daitekeen esango diete hitzaldietara hurbiltzen diren guzti; betiere, fedea ardatz hartuta.

HITZALDIK, SEIETAN BASOTXON

Hitzaldi guztiak Basotxo erretiratuaren elkartean egingo dituzte, arratsaldeko sei etan. Eguaztean izan ezik -jaieguna da-, gainerako egun guztietan izango dira azalpenak.

Astelehenean, Enrique Larrañagak *Zoriontasunaren Pedago-*

gia-ren gainean egingo du berba. Martitzenean, Felisa Larreak *Bataiatuaren Bokazioa Sufritzen Dutenen Zerbitzura* izango du mintzagai. Eguenean, Arantzasu Enekotegi eskoriatzarra izango da hizlaria, eta *Bide Lagun Izatearen Esperientzia* kontatuko die batutakoei; eta azkenik, egubakoitzean, *Gaixoen Igurtziaren Sakramentua*-ren gainean jardungo du Javier Gómez Eskoriatzako parrokoak.

Astea bukatzeko, zapatu arratsaldean parrokiaren esango den meza gaixoen alde izango da. Eukaristian, gainera, gaixoen igurtzia hartzeko aukera ere izango dute elizan batutakoek. Herriko gaixo gehienak batuko dira, seguru asko; iaz, 50 gaixotik gora hurreratu zen aldarera gaixoen igurtzia hartzera. Meza bukatu eta gero, txokolata emango diete gaixoei eta haien senideei zaharren egoitzan.

Ez da samurra egunero-egunero gaixoei bizi izatea. Osasun Asteak gaixoarekiko ikuspegia aldatzen lagundu gura die senideei eta zaintzaileei, era berean, gaixoaren egoera hobetzeko. Gure gizartean gaixoei bizi izaten ikasi behar dugu eta zenbat eta lehenago egin hobeto.

Gaixotasunak eramangarriago egiteko zer egin esango diete hitzaldietan

Osasun Astea bukatzeko, zapatuan parrokiaren esango den meza gaixoen alde izango da

TXUTXUMUTXUA



Alemaniarrek Aretxabaletako Institutuan

Alemanian Bavaria herritik etorritako bost ikasleri ongi-torria egin zieten Aretxabaletako Institutuan astelehenean. Leonardo da Vinci Programak lagunduta etorri dira, eta Ederlanen, Indal Casting-en, Mecanizados Alberdin eta San Juan de Dios Ospitalean egingo dituzte praktikak. Lan egiteaz gain, Euskal Herria bisitatzeko aukera ere izango dute. Martxo inguruan, Aretxabaletako Institutuko hainbat ikasle Alemanian egon ziren, eta oso pozik itzuli ziren guztiak. /MIRARI ALTUBE

- Aitzorroitz elektronikak
- Alboka gazte moda
- Angelines autozerbitzua
- Aretxabaleta iturgintza
- Asensio jantzi denda
- Begiondo optika
- Errasti kioskoa
- Errekabarren fruta denda
- Etxabe harategia
- Farma bizi parafarmazia
- Gemes edertze aretoa
- Gertu janari prestatuak
- Haurrak umeen moda
- Herrasti akeita etxea
- Ibarra estankoa
- Iber loteria
- Imanol janari denda
- Iriarte umeen denda
- Irudi ileapaindegia
- Jauregi okindegia
- Jon harategia
- Josu harategia
- L-10 ileapaindegia
- Larrad ileapaindegia
- Lasai masajeak
- Leibar arraindegia
- Leintz drogeria
- Leniz liburudenda
- Mari Karmen oinetakoak
- Maritxu mertzeria
- Martin erlojudenda
- Miren Zuriñe bitxitegia
- Nerian loradenda
- Txilarra dietetika
- Xume oihal denda
- Zainduz osasuna/fitnessa
- Zare artegintza
- Zubia oinetakoak



UDABERRIKO ZOZKETA!

150 EUROKO SARI BAT ETA 60KO ZORTZI SARI!

Aretxartek bedetatzi erosketatxartel zozketatuko ditu gurean erosketak egiten dituztenen artean. **Zozketa ekainaren 4an egingo dugu! Hartu parte!**



KROSA

Herritarren parte hartzea bultzatu gura dute Otala Zelaiko Krosean

Mutilek ere Urkuluri buelta bakarria emateko aukera izango dute aurtengo krosean

MIRARI ALTUBE

Maiatzaren 5ean (domeka) jokatu dute Otala Zelaiko Krosa. Aurten, herritarren parte hartzea berreskuratu gura dute, eta horretarako, hainbat aldaketa egin dituzte arauetan Udaleko Kiroletako arduradunek. Era berean, sari gehiago banatu dituzte.

Historia luzea dauka Otala Zelaiko Krosak, eta urtero moduan, maiatzeko lehenengo domekan jokatu da. Aurten, gainera, herritarren parte hartzea berreskuratu gura dute, eta hori bultzatzeko, erraztasunak emango dizkiete parte hartzaileei.

ALDAKETAK ARAUETAN

Denbora ona egin eta saria eskuratu gura duen mutilak buelta bi eman beharko dizkio Urkuluko urtegiari. Beste barik parte hartu gura duenak, bestalde, buelta bakarria emateko aukera izango du. Juniorrek, beterranoek, emakumeek eta gaztetxoek, lehen bezala, buelta bakarria eman beharko diote Urkuluko urtegiari.



lazio sarituen artean aretxabaletarrak ere egon ziren. Ia aurten ere animatzen diren.

ARTXIBOA

Aurreko urteetan emakumeen artean ez dute banaketarik egin sariak emateko orduan; aurten, mutilen kategoria berberak egongo dira. Gaztetxoek parte hartzea ere ez dute ahaztu, eta hori bultzatzeko, eskoletara jo dute Udaleko

Kirol Zerbitzuetako arduradunek. Hogeita hiru urteko historia duen krosak hasierako giroa eta herrikoitasuna berreskuratu gura dute aurten. Horretarako, aretxabaletarren parte hartzea ezinbestekoa izango da.

PALA

Igor Zenikaonandia eta Ander txapelkunak domekan jokatu zen finala irabazi ostean

Domekan bukatu zen Aretxabaletako kirol zerbitzuek antolatutako Pala Txapelketa. Igor Zenikaonandia eta Ander izan ziren txapelkunak Jon Alberdi eta Igor Ortiz de Urbinari 35 eta 29 nagusi ostean. Hirugarren postuan, bestalde, Jaime Acedo eta Asier Muruamendiaraz geratu ziren Ruben Iturbe eta Aitor Iraolari 35 eta 34 irabazi eta gero.

ARETO FUTBOLA

Putas de Satan taldea dago lehenengo postuan, Peña Hugo taldearekin berdinduta

Arlutz taberna osteko kantxan jokatzeko ari den areto futbol txapelketa aurrera doa. Txapelketako azken hilabeteetan sartu dira eta Putas de Satan taldea dago lehenengo postuan, Peña Hugo taldearekin berdinduta. Hamaikana puntu dituzte biek. Gero, MCM eta DDK taldeak daude. Zapatuan, gainera, Peña Hugo eta Putas de Satan taldeek elkarren kontra jokatu dute, 16:00etan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Oñati-UDA

Preferentea.

Domeka. 16:30. Oñati.

UDA-Axular

Bigarren mailako erregionala.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

UDA-Balmaseda

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Lasagabaster/Alzola

Seniorrak.

Zapatua. 16:00. Añorga.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Bergara 2

Preferentea.

Eibar 0 UDA 0

Gazteen Euskal Liga.

UDA 0 Ostadar 0

Bigarren mailako erregionala.

UDA 2 San Ignacio 2

Bigarren mailako gazteak.

Lengokoak 1 UDA 5

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 2 Kostkas 3

Landetxa 0 UDA 3

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Urretxuko Pilota Txapelketa

Lasagabaster/Alzola 12

Errasti/Landa 22

Seniorrak.

Añorgako Pilota Txapelketa

Uriarte/Oion 13 22

Gazteak.

www.forumspor.com



Rossignol
Atomic
Fischer
Nordica
Lange
Head
Salomon
Dynastar
Skitrab
Lowa
Scarpa
K2
Nitro
O.Sin
Oxigen
Columbia
The North Face
Colmar
ACG
Ziener
Level
Dakine
Briko
Cébé
Carrera
Oakley
Eassun

Ternua
Mountain Hard Wear
Millet
Salewa
Solo Climb
Tuckland
Salomon
Peltz
Boreal
Asolo
Ferrino
Vaude
Garmin
Magellan
Neak Peak
Coleman
Grivel
Lorpen
Sportiva

Astore
Adidas
Asics
Mizuno
Reebok
Fila
Polar
Umbro
Diadora
Joma
Lotto
Speedo
Arena
TYR
Stress Out
BH
Tunturi
Oxbow
Sun Valley
Think Pink
Jansport
Gotcha...

Garibai Etorbidea 2-6
20500 Arrasate, Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

ERRETRATUZAHARRA

Eskolatik Estibalitzera irteera

Eskolatik irteera edo txangoak egitea ez zen oso ohiko orain dela 50 bat urte.

Ondoko argazkian dauden mutilek, baina, zortea izan zuten, nonbait. Izan ere, maistrua edo irakaslea arabarra zuten, eta Araba aldera ez bazen, Nafarroara eramaten zituen ikasleak. Alboko erretratu zaharra, esate baterako, 50eko hamarkadaren amaieran Estibalitzeko sarrera nagusiaren parean ateratakoa da.

Lehen Hezkuntza edo orduko *Educación Primaria* delakoa egiten zebiltzan garai hartan erretratuko gaztetxoak. Hamabi eta hamahiru urte bitartekoak ziren guztiak. Urte haietan, neskek eta

mutilek banatuta hartzen zuten eskola, eta honako argazkian bi neska azaltzen badira ere, horiek ez zeuden mutilen eskola berean. Bi neskatoak irakaslearen alabak ziren, eta hari laguntzera joan ziren Estibalitzera.

Eguraldi ona lagun egiten zituzten txangoak eskolatik. Praka motzak, jertse pikoduna


eta galtzerdi luzeak jantzita joaten ziren gehienak. Orduan, ez zegoen eskolara joateko uniformerik. Baina argazkian argi ikusten den moduan, nahiko berdintsu jantzen ziren guztiak. Baserritarrak albarak aldean zituztela joaten ziren, sarri asko, eskolara. Horrelako irteeretara, berriz, zapatilak edo alpargatak

oinean zituztela.

Erretratu zahar honetan, goitik eta ezkerreko aldetik hasita, honako hauek azaltzen dira: *Mendaro*, Hilario, Jorge Zubizarreta, Jesus Azkoitia, Jose Luis Urrutia, Jose Mari Lasa, Angel Mari Osinaga eta irakaslearen bi alabak, Osinagatar ahizpak.

Beheko ilaran, ezkerretik hasita, hauexek: Juan Jesus Anduaga, Jesus Aldai, Angel Arriola, Jose Luis *Txelis*, Erlaiz, Agustin Aginagalde, Fernando Lasagabaster eta Andres Osinaga.

Argazkia: Jesus Osinaga




ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

GARBITU S. KOOP


*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAleta
Tel: 943 79 01 28



*Hirusta
Fatetxea*

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76


OPEL

**Lider berria: COMBO.
Bere kategorian onena.**

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABAleta
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzeko dizugu sei hilabetera, ata kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a / 77. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Aldaketa ugari liburutegian, liburua eta literatura protagonista izan diren astean

AMAGOIA LASAGABASTER

Liburuaren Eguna ospatu den astean, herriko liburutegian aldaketa ugari egin dituzte. Besteak beste, astelehenetik aurrera arduradun berria dauka liburutegiak. Eskoletan, ikastoletan eta unibertsitatean, berriz, liburuak eta literatura izan dira protagonista.

Oskar Loiti 28 urteko gazte arrasatearra joan den astelehenean hasi zen Eskoriatzako Udal Liburutegian lanean. Ordura arteko arduradun Jasone Erostarbek apirilaren 19an postua utzi eta gero hasi da Oskar Loiti arrasatearra liburutegian lanean.

Lehenengo egunetan, Oskar liburutegiko materiala zenbatzen eta Jasonek utzitako lanak egiten ibili zen. Hori dela eta, aurten ez dute egin Udal Liburutegian ez Liburuaren Nazioarteko Eguneko ospakizunik. "Langile aldaketa dela eta, ez dut astirik izan apirilaren 23a ospatzeko". Oskar Loitik badu eskarmentua liburutegiko lanetan: "Bestelako ikasketak egin ditudan arren, orain arte Arrasateko bi liburutegitan ibili naiz lanean, Monterrongo



AINTZANE GARDOKI

Liburutegian ez dute ekintza berezirik egin, baina herriko umeek liburua izan dute lagun astean barrena.

liburutegian eta Santa Marina auzo-liburutegian, hain zuzen ere". Oskarrek, liburutegian urtebete egiten badu, liburutegi berria ikusteko aukera izango du. Udal

Zerbitzuetarako zinegotzi Juan Carlos Bengoaren esanetan, berriz, lanak nahiko atzeratuta dabilta: "Eskoletan ezin daiteke zaratarik atera, hortaz, arratsal-

deetan bakarrik egiten dute lan. Horren ondorioz, atzerapenarekin dabilta; dena dela, ustez, urte amaierarako liburutegi berria gertu egongo da".

"Langile aldaketa dela eta, ez dut astirik izan apirilaren 23a ospatzeko"

"Bestelako ikasketak egin arren, orain arte Arrasateko bi liburutegitan ibili naiz lanean"

"Ustez, urte amaierarako liburutegi berria gertu egongo da"

HERRITARREN HITZA / David Arrieta • alkateordea

Udala-unibertsitatea eta literatura-umorea!

LAN latza herri txikietan herrigintzan dihardugunona. Sarritan biheleku gehiago sortzen digu egiten duguna saltzeak egiteak berak baino. Eta trantze horretan nago. Egia esateko eta kasu honetan egin-egin, ez dut gauza askorik egin: neure planta dotorearekin prentsaurreko bat jantzi. Han ez nuen lan gogorrik izan: Unibertsitateak antolatu duen Literatur Astea eta Udala eta Unibertsitatearen arteko elkarlanari buruzko zertzelada emateko bi minutu berbetan.

Hemen zinegotzia. Hemen dekanoa. Egunon. Egunon.

Plas-plas-plas. Eta sefini.

Txarrena, bateon batek ni Txirritarekin konfundituta edo bertso bat (artikulu hau) enkargatu zidala. Buruhandi, tripon-tzi eta berbeta dotorearen jabe izatearen ajeak nonbait. Eta lau puntu eman zidan lana osatzeko. Puntu xebleak berriz: Udala, Unibertsitatea, Literatura eta Umorea. Jo-ta-ke ekin diot lanari.



"Joateko paradarik izan ez duzenok, zaudete lasai!"

Lehenengo eta behin dokumentatu. Batutako datuekin gogoeta sakona egin. Ondo hausnartu dena borobiltzeko. Gaiari buruzko pentsamenduak edo pentsamendu ezak ordenatu. Nora heldu nahi dudan erabaki. Abiapuntua aukeratu. Bidea prestatu. Baita saihebidetako ere.

Luma zorroztu. Dozena bat folio txukun-txukun atondu eta ...

Kaka zaharra! Kristoren artikulua papeleratzea besterik

falta ez zitzaidanean, zera, artikulua Literatur Astea ekin aurretik prestatu ondoren, ez naiz ba jabetu bukatu eta gero plazaratuko dela... Jarri behar nuenak honezkero ez du zentzu handirik. Gainera gauza segurua da jardunaldietan izan zarenok pertsona osoago eta zorionsuagoak izango zaretela.

Bejondeizuela!. Joateko paradarik izan ez duzenok oster, zaudete lasai, bai Udalak eta bai Unibertsitateak emankor nahi dugun elkarlanari jarraipena eta geroa nola eman sakontzen eta borobiltzen ari gara eta.

Bejongaitzala!!!

LABUR

Gogotik disfrutatu dute HUHEZIn literaturaz

Liburuaren Nazioarteko Eguna bakarrik ez; izan ere, aste osoan, umorea mintzagai hartuta, idazle, aktore eta marrazkigile ezagunak izan dira HUHEZIn. Jon Alonso, Arantxa Iturbe, Iban Zaldúa, Ander Lipus aktorea eta gaur, literatura astearren laugarren aldia amaitzeko, Kike Amunarriz eta Asisko Urmeneta eta Antton Olariaga marrazkilarik izan dira. Pozik azaldu dira antolatzaileak, jende ugari batu delako literaturaren inguruan HUHEZIn.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaltexea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde Ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

GAZTE ASTEA

Datorren astean, apirilaren 29tik maiatzaren 5a bitartean, EGASEk Gazte Astea antolatu du.


Hitzaldiak, kontzertuak eta zapatuan, hilaren 4an, akelarrea antolatuko dituzte, besteak beste, EGASEko kideak..

ATXORROTX EGUNA.

Kulturak, Ikastolak eta GKEak antolatuta, datorren domekan. Goizean txistuen soinuekin jaiki eta Atxorrotxera denok! Han izango da zer entzun eta zer ikusi. Herri bazkarian parte hartzeko txartelak salgai daude 10 euroren truke.

AXTROKIRENAGENDA

KULTURA PROGRAMA LANTZEN
Elkarteko dinamizatzailea datorren hilerako kultura programa osatzen ari da. Txuma Murugarrenen kantaldia eta ardo dastatzearen gaineko ikastaroa izango dira maiatzean.



'Argia' aldizkaria indartu guran

Kike Amunarriz, han eta hemen ikusi dugun gizona, egun, *Argia* aldizkariko sustapen arduraduna da. Joan den barikuan, HUHEZIn izan zen E. Urruzmendi lankidearekin, hango ikasleei eta hurreratu ziren guztiei *Argia* hur-hurretik ezagutzera emateko. Kanpaina horrek harpidedun gehiago lortzea eta aldizkaria irakurleari gerturatzera ditu helburu. Azkeneko alea doan banatu zuten, eta 1969an argitaratutako lehenengo alea ere izan zituzten, besteak beste, ikusgai.



Konponbide demokratikoa

Batasunak, gurean ere, Konponbide Demokratikorako Proposamena aurkeztu du. Eusebio Villarrek eta Aitor Uribebebarriak, *Bake-eskenatokia Euskal Herriarentzat* lelopean, euren alderdiak bakerako egin duen proposamena aurkeztu zieten herriarrei. Sei puntu nagusik osatzen dute dokumentu hori. Haien esanetan, dokumentuak alderdiaren posizioak finkatzen ditu, eta gaineratu zuten bake prozesuaren bidean aritzeko jarrera guztiz irekiari eusten diotela.

LABUR

Oskorriekin batera 'Pub Ibiltaria'-n protagonista izateko liburuxkak eskuragai

Datorren astean, Oskorriren *Pub Ibiltaria* etorriko da herrira. Ikuskizun horretan, taldekideez gain, ikuslea bihurtzen da protagonista nagusi. Kontzertuko errepertorioa osatzen duten kantuak guztiondako ezagun bihurtu gura ditu talde bizkaitarrak. Hori dela eta, liburuxka

bat kaleratu dute, eta eskoriatzar guztiok eskuragarri duzue Euskara Zerbitzuan. Batetik, kantuen hitzek, eta bestetik, edonork musika instrumentuekin jotzeko partiturek osatzen dute liburuxka. Datorren barikura arte, badago hitzak ikasi eta kantari hasteko astia. Animo!

Eskoriatzako areto futboleko ohorezko mailako taldeak indartsu jarraitzen du

Asteburuan, areto futboleko ohorezko mailako taldeak txapel-dun izateko aukera galdu zuten, Lo+9 taldearen aurka 2-5 galduta. "Irabazi izan bagenu, gurea zen titulua. Urte osoan partidu bi bakarrik galdu ditugu, biak Lo+9 taldearen aurka", esan digu Muñozek, Kirol Elkarteko pre-

sidenteak. "Liga bukatu arte ez dakigu zer gertatuko den. Abantailak baditugu, baina zapatu-koaren moduko estropezuak ere izan ditzakegu oraindik. Kontuz ibili behar gara, tentu handiz. Astean ez daukagu partidurik, eta horrek on egingo digu bai fisikoki eta bai psikologikoki ere".

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



HURRETIK/ Mainer Beloki · ikaslea eta soroslea

“Telebistako gorputz liraineko horiek ligatuko dute agian; nik, berriz, hobe dut uretan dabilenari erreparatzea, bestela...”

Maiderrek 18 urte bete berri ditu astean. Ikasturtea amaitzen duenean ez badauka oso argi zer egin nahi duen, aurten, uretako sorosle titulua atera du. Eta agian, horrek kirolarekin zerikusia duten ikasketak egitera animatuko du Mainer.

Ikasturtea amaituta, erabaki gogorra hartu beharrean zaudete.

Bai, baina ez daukat ezer argi. modulu bat egin nahi dut; Administrarritza izan dut beti gogoko, baina agian kirolarekin lotutakoren bat ere... Bueltak ematen ari naiz.

Soroslea zara. Nolatan?

Kiroldegiko arduradunak animatu ninduen, inguruetan

premia handia dagoela-eta. Taldetxo bat ibili gara, hiru hilabeteetan, asteburuetan, uretako sorosle izateko ikastaroa egiten.

Gogorra izan da?

Hasieran bai. Oso lotsatia naiz; gainera, denak ziren ni baino askoz nagusiagoak, IVEF egindako mutil pusketak asko. Ikastaroa hasi aurretik gogor hasi nintzen entrenatzen, bestela, jai neukan. Azkenean merezi izan du egin dudana ahaleginak. Lagunak egin ditut, eta agian, nire lotsaren zati bat ere uretan urperatuta gelditu da. Eta orain, gainera, sorosle lanetan hasteko aukera ere badaukat; egun batzuetan Eskoriatzako igerilekuan izaten naiz, eta udan, uste dut makina-



txo bat ordu pasatuko ditudala igerilekuaren ertzean.

Sorosleek asko ligatzen ei dutela diote.

Telebistan agertzen diren gorputz liraineko horiek ligatuko dute, agian. Nik, berriz, hobe dut uretan dabilenari ondo erreparatzea, bestela...

Gatzagan, gazte izatearen abantailak eta desabantailak zeintzuk dira?

Desabantaila handiena, garraio publikorik ez izatea. Ni amarekin ibili behar izaten naiz gora eta behera. Abantailak, berriz, herriko gazteok daukagun lokala, adibidez; hori luxua da. Leku gutxitan daukate horrelako lokala gazteek.

‘Txuletarik’ egiten duzu inoiz? Inoiz egin ditut txuletak, baina

aurten, ezta pentsatu ere!

Ikasturte honetan asko dago jokoan. Gainera, tontokeriaren bat kopiatu izan dudanean, oso oso urduri jarri izan naiz. Aurten, argi daukat, ikasi eta ikasi!

Irakurtzea ala telebista ikustea?

Ez dut irakurtzeko zaletasun handirik. Gurago ditut telebista-ko saioak. Gaueko telesailak ditut gustuko; izan ere, hurrengo goizean ez dut izaten jaikitze-ko inolako arazorik.

Jateko platerik gustukoena? Egia esatearren, nahiko milinga naiz. Okela-xerra on bat patatekin, primeran!

Eta gustuko mutila, nolakoa? Galdera horri... hurrengo baten erantzungo diot!



Itxura guztiz aldatu diete udaletxe inguruei

Beheko parkeak eta eskola inguruek beste itxura bat daukate. Eskolako umeendako segurtasun neurri batzuk hartu behar zirela eta, espaloia egin dute, eta parkean ere aldaketa ugari egin dute. Lanak egin ondoren, parkea txikiago gelditu da, baina atzealdean egin duten harresia seguruagoa dela ezin ukatu. Aurrealdean egin duten harresi txikiaren gainean, berriz, zalantza, han eta hemen, nagusi.

LABUR

Sorginak taldeak Burgos alderako bidaia prestatu du datorren hilabeterako

Maiatzaren 10ean, 11n eta 12an egingo du ohiko urteko irteera Gatzagako Sorgina emakume taldeak. Aurten, iazko Londres atzean utzita, autobusa hartu, eta herriko 22 emakumek, gazteak zein nagusiak, Burgos hiriburua eta inguruak bisitatuko dituzte.

Maiatzaren 10ean, barikuan, hartuko dute autobusa, 16:00etan. Hotela Burgos hiriburuan bertan izango dute. Horrela, zapatuan, Silos eta Cobarrubias bisitatuko dituzte. Domekan, berriz, Tobalina ibarreko hainbat herri ikusteko aukera izango dute.

ESKUZ LARRUGINTZA


Askotariko larrugintza lanak
Mandatu eta lan bereziak

Pilar kalea 9 LEINTZ GATZAGA 943 71 41 54



DORIETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



Aingeruardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88



Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3
ARETXABALET
943 79 72 55

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALET

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12


ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALET

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
DekoratiBo eta
Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALET
686 113 581 / 943 79 65 46



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALET

943 79 64 91 / 605 71 66 92 / 629 47 72 70



Instalazioen mantenumendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANO
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba Ibilbidea, 17
•Tel.: 943 79 28 41 •Faxa: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarrilehoak@euskalnet.net



Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALET
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALET
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALET

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALET

943 793 187

autopista aldizkaria FORD FOCUS, FIDAGARRITASUNEAN AURRENA

Alemanian, Ford Focus autoa liderra da kalitatean eta fidagarritasunean. Horixe dio automobilaren industrian kontrol ikuskapena eta gainbegiratze teknikoa egiten dituen TÜV erakundearen urteko txostenak. Era berean, txosten horrek dio Ford Focus autoak presentzia geroago eta handiagoa duela Europako erpepideetan eta geroago eta presentzia txikiagoa tailerretan. Hainbat froga egin eta gero, emaitza izan da Ford Focus autoak ehuneko bateko akats prozentajia besterik ez duela; azken hamar urteotan TÜV erakundeak erregistratu duen portzentajerik txikiena.



TÜV txostena erabiltzeko autoen inguruko informazio gida bat da. Txosten horrek autoak sailkatzen ditu "akats txiki" eta "akats nagusi" arabera.

Nahiz eta Japoniarrak oraindik ere talde nagusia izan "akats txiki"-etan, autten, Ford Focus autoarekin, Alemaniako fabrikatzaile batek lehen postua lortu du urte bat eta hiru urteko antzinatea duten autoen artean. Ondorengo antzinatean taldeetan Toyota'k du lider-tza. Eta Mercedes SL da lehena 8 eta 9 eta 10 eta 11 urte bitarteeetako antzinatea duten taldeetan.



1etik 3 urtetara	4tik 5 urtetara	6tik 7 urtetara	8tik 9 urtetara	10etik 11 urtetara
1. Ford Focus 1.0	1. Toyota Starlet 2.1	1. Toyota RAV 44.1	1. Mercedes SL 5.4	1. Mercedes SL 6.8
2. Toyota Avensis 1.7	2. Nissan Maxima 3.5	2. Mercedes SL 5.1	2. Porsche 911 6.2	2. Porsche 911 8.1
3. Toyota Starlet 2.1	3. Subaru Impreza 3.6	3. Porsche 911 5.4	3. Toyota Carina 8.3	3. Toyota Carina 11.7
4. Toyota Plonic 2.1	4. Subaru Legacy 3.8	4. Subaru Impreza 5.4	4. Subaru Legacy 9.3	4. Subaru Legacy 12.5
5. Toyota Corolla 2.1	5. Porsche 911 3.9	5. Toyota Carina 6.1	5. Mercedes Clase S 9.5	5. Mercedes W124 13.4
		Toyota Starlet 6.1		

ford Focus
Diseinu inteligentea



MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea, z/g ARRASATE-MONDRAGON Tel: 943 797 564
mugarri@mugarri.es

902 442 442
www.ford.es